

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
44	1.629	59	531
positibo berri	hildako EAEn	positibo berri	hildako
3.578	6	7.614	6
positibo guztira*	UCIn EAEn	positibo guztira	ospitalizatuta

\*Hernanin 81 Astigarragan 29

## «Hartzen den edozein erabakiren aurrean prest egon behar dugu» dio Juan Rodriguezek

Errugbi denboraldia oraindik ere finkatu gabe dago eta zer gertatuko den airean dago. Nagusiak entrenatzen hasi dira neurriak betez, baina non eta noiz jokatu duten jakin gabe.

### HERNANI ERRUGBIA

Hernani Errugbi Taldeko nagusienek maila galdu zuten pasa den denboraldian eta denboraldi berrirako entrenamenduak hasi dituzte. Hori bai, Juan Rodriguez presidenteak dioen bezala «oraindik jakin gabe noiz hasiko den eta jokatu den edo ez. Dena airean dago». Entrenatzeko ere neurri bereziak hartu dituzte. «Entrenatzen hasi gara, baina eskatzen dituzten protokoloekin. Bost eta hamarrek taldeak, gimnasioan... protokolo batzuk jarraitu behar ditugu».

Klubera sartzen direnean sartu-irteerak kontrolatzen dira orri batean apuntatuz zein eta zer ordutan sartu edo irten den. «Orain dela aste bete Ohorezko Maila bigarren eszenatokira igaro zen. Liga irailean hastekoa zen eta hori atzeratu eta urriaren 11ra pasa dute hasiera».

Hurrengo urtean Ohorezko Mailan jokatzeko aukera hori ere ez dago guztiz baztertua klubean nahiz eta zaila izan. «Bathcoren gaia dago. Santanderreko taldea jaisten badute guri egokituko litzaiguke postu hori, guk hori ulertzen dugu behintzat. Playoffetara sailkatu ziren taldeak izatea gure aurka joatea litzateke» dio Hernaniko presidenteak.

### Ohorezko maila eta B maila artean beste bat zortzi talderekin?

Hortik beherako mailetan zer gertatuko den oraindik ere ez dakite. «Zaila ikusten dut. Espainiako batzarra biltzeko dago eta futbolearen esaterako urtarriera begira jarri dira Bigarren B

mailatik azpiko taldeak. Batzar horretan planteatu eta erabakiko da Ohorezko eta Ohorezko B mailen artean beste maila bat sortzea. Horretarako abal kopuru bat behar da. Frantzia horrela egin da eta hemen ere aukera hori egongo litzateke. Hala ere bidaiak ez lirateke xamurrak izango guretzat. Valentziara, Jaenera... bidaiatu beharko genuke. Playoffera sartu ziren zazpi taldeak eta gu, zortzi, izango ginatke».

### «Gozatzeko helburua dute mutilek eta ez horrenbeste sufritzeko»

Hala ere dena dago erabakitzeko eta zer gertatuko den inork ez daki. Hori bai taldeek denboraldia prestatu behar dute berdin-berdin badazpada ere. Taldea osatu ere bai, denboraldiari begira. «Oraingo gogo haundiekin daude mutilak eta ilusio haundiarekin. Gogo asko dituzte maila honetan jokatzeko helburuak desberdinak direlako, estres gutxiagoko helburuak dira. Hemen igotzeko borrokan ibiltzea da helburua eta Ohorezko Mailan sufrimendua haundia da. Mikel Perezek gurekin jarraitzen du, nahiz eta kanpoko eskaintzak izan dituen».

Oraindik, %100ean, klubean ez dakite ongi nork jarraituko duen eta nork utziko duen. «Otxotorenatarrek utzi egingo dutela dirudi, Mattin Colladok ere intentzio hori erakutsi zuen eta orain dudetan dago».

### Presidentetzarako prozesua abian jarri da

Taldearen egitura aldetik ere berrikuntzak daude eta presiden-



Kanpoko eskaintzak izan arren Mikel Perezek Hernanin jarraituko du.

tetzarako hauteskondeak edo aukeratzeko prozesua abian da aurtun. «Gure egituraren lehendabizi presidentea aukeratzen da eta ondoren presidenteak bere taldean zein izango diren batzarkideak aurkezten ditu». Juan Rodriguezek ez aurkeztea pentsatu zuen, baina azkenean berriz ere hautagai izango da. «Presidente izateko jendea ez da animatzen. Batzarkide izateko bai, baina zailagoa da pauso hori ematea». Klubaren filosofia eta lan egiteko moduarekin jarraitzea nahi du Rodriguezek.

«Horiek dira gure euskarriak eta bide horretan jarraitu nahi dugu».

### «Harrobiko gaztetxoek jokatu egin behar dute»

Taldeak aurkitu duen beste arazoa beheko mailako taldeek ezin jokatzeara da. «Polidorik esan digu ez dela posible mundua jan nahi duten gazteek eta jokatzeko irrikitan dauden 18 urtetik beherako jokalariek ezin jokatzeko. Sei hilabete geldirik egotea asko da beraientzat, baina ez da erraza egoera honetan.

Hendaian hasi dira entrenatzen 16 urte azpikoak eta entrenatzen joateko animatzen digute. 14 urtez azpikoetan gainera Hernanira etorri daitezke Hendaia-tik. Kirolen artean kompetentzia haundia dago eta badaude gurasoak 10 urteko umea ekarri dutena jokatzera, baina aukera hori ez badiogu ematen jai daukagu aurtun. Landarera etorri eta jokoak edota jolasak antolatuta beharko genituzke aktibitate mantentzeko. Horregatik udaleku modukoak planteatuko ditugu aurrera begira». K

**FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA**

Asegururik ba al duzu?  
**Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.  
**943 33 10 20**

www.funerariaorbegozo.com

\* Zerbitzu partikularrak eta aseguru txarrekin  
\* Beilatokiak

\* Errusketak  
\* Lekualdatzeak  
\* Eskelak, korroak...

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

Zentrala: Latsunbe 7, Hernani

**Samitek**

Bulego makinaren salmenta eta mantenimendua

samitek@samitek.es  
www.samitek.es

TOSHIBA

INFORMATIKA SAIL BERRIA

943 11 77 44

Dokumentuen kudeaketa  
Ez galdu paperak

**BIKAIN**

OKINDEGI TX GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42  
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89

20120 Hernani

**GAUR** Ez da aldaketa handirik espero. Zeru lainotsu egongo da, tarteka oso lainotsu eta noizbehinka euria egin dezake. Temperatura zerbit jaitziko da. **Min.19° / Max.26°**

**BIHAR** Eguraldiak zerbit hobera egingo du. Ezegonkortasuna ez da erabat desagertuko baina ekaitz arriskua bai. Zeruan laino tartekak ikusiko dira. **Min.18° / Max.25°**

**DOBERA EUSKARA ELKARTEA**

**LAGUNTZAILEAK**

**Hernaniko Udala**

**Astigarragako Udala**

**Goizuetako Udala**

**Goizuetako Udala**

**Aranoko Udala**

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

**ESKURAGARRI DAUDE**

**GIJONKO FORU AHDUA**

**DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK**

## Sarini Zirkoaren emanaldia eskainiko da bihar Portu auzoan

18:00etan hasiko da Ibarrolaburu plazan eta euria egiten badu Elizatxora pasako da.

**HERNANI PORTU AUZOA**

Udan kulturaz blai programaren barruan bihar, 18:00etan, Sarini Zirkoaren emanaldia eskainiko da Ibarrolaburu plazan. Eguraldi txarra eginez gero Elizatxo ikastolara pasako litzateke espektakulua.

Aurten Portu auzoan ez dituzte festak antolatatu, baina bai ekitaldi kulturalak, batez ere familiarizatuzendukoak. Hernaniko Udalaren laguntzaz ekitaldi bat baino gehiago eraman dira aurrera.



Sarini Zirkoan akrobazioak ikusi daitezke.

Sarini Zirkoak familientzako ikuskizuna eskaintzen du, lengoia unibertuala, poetikoa eta dibertigarria duena.

### Emozioak eta umorea

Protagonistak zenbait emozio biziko ditu, eta umorearekin jolastuko du, beti ere txoritxo bat lagun duela, bere bidai laguna

izango dena. Txoriak txori da ikuskizun horren izena, baina ez da bakarra.

Quick change-a, aireko begia, bertikalak, hula hop-ak eta laban-jaurtiketa ere izango dira ikuskizun honetan landuko diren zirkuo diziplinak. Sara Alvarezek diziplina desberdinak erabiltzen ditu. **K**

## Haurren zaintzarako kontratazioak egiteko dirulaguntzak abian, Udalak

25.000 euroko dirulaguntza bideratuko du koronabirusak eragindako osasun krisiaren eraginez, haurren zaintza «zaildu» egin delako.

**ASTIGARRAGA KORONABIRUSA**

Astigarragako Udalak, haurren zaintzarako kontratazioak egiteko dirulaguntzak emango ditu, izan ere, Covid-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz, «zaildu egin da haurren zaintza».

Udalaren dirulaguntza hau, 2020ko ekainaren 1etik, abenduaren 31ra arte, «0 eta 4 urte bitarteko haurrak zaintzeko kontratazioak egin dituzten

Astigarragako herritarrek eskatuz ditzakete».

Familia bakoitzak kontratazio gastuaren %50a jasoko du, «gehienez ere 500 euroko laguntza arte hileko». Hala ere, salbuespen kasu batzuk aurreikusitu ditu Udalak, aipatutako ehuneko eta kopuruari gehikuntzak aplikatzeko.

Hala nola, guraso bakarreko familiek, %10 gehiago, genero indarkeria biktima direnek %10 gehiago, familia unitateko kide-

ren batek %33tik gorako urritasunen bat badu, %10 gehiago, eta DSBE jasotzen duten titularrak edo onuradunak, gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonak, %10 gehiago.

### Eskariak aurkezteko, epeak eta tokia

Irekita dago eskariak aurkezteko epea, larunbatean ireki zen hain zuzen, eta azaroaren 15ean amaituko da.

Eskariak, bi bideetatik egin daitezke. Modu telematikoan, «udal zerbitzu telematikoaren tresna erabiliz», eta modu presentzialean, «udaletxeko erregistrora gerturatuz». **K**

## Izarren behaketa atzeratu egin da

Eguraldi txarragatik abuztuaren 28tik 29rako gauera pasa da behaketa Chillida-Lekun.

**HERNANI UDA HERNANIN**

'Uda Hernanin' egitarauaren barruan gaur gauean egingo zen *Izarren behaketa*. *Pertseidak Chillida Lekun* jarduera atzeratu egin da arrazoi meteorologikoengatik. Abuztuaren 28tik 29rako gauera pasa da. Ilgora-gaua izango da, une aproposa Jupiter eta Saturno konjuntzioan ikusteko. Izar bikoitzak

eta zeru sakoneko objektuak ere ikusi ahal izango dira, hala nola Andromeda galaxia. Gaua behar bezain argia bada, oraindik ere ikusi ahal izango da pertseida izarren bat. Sarrerek data berri honetarako balioko dute.

### Etzi, Panoli kabareta

Atzeratu ez dena *Panoli kabareta* da. Ganso&Cia antzerki konpainiak, etzi, ostiralean, 19:00etan

Atsegindegina eskainiko du. COVID-19 garaian sortutako kale antzerki ikuskizuna da. Umorea ardatz duen zirku parodia, ikusle guztientzat eta bereziki haurrentzat dago zuzendua.

«Autoestimua gaindosi baten emaitza da *Panoli kabareta*. Zirku edota vodevil-aren historian ez dira oroitutako izango, baina behintzat barre batzuk botako ditugu» diote Ganso&Cia ki-deek. Ganso&Cia eta Cecilia Paganiniren ikuskizunen eszena onenetakoak abiapuntu bezala hartuta sortu da. **K**

## Kultur etxeko postalak bidaltzeko epea luzatu da

Abuztuaren 21a izango da azken eguna kiroldegian, kultur etxean, kaleko postontzietan edo udaletxean uzteko.

**ASTIGARRAGA UDALA**

Kultur etxeko postalak bidaltzeko epea luzatu du Astigarragako Udalak. Hasiera batean pasa den igandera arte zegoen jarrita epe hori, baina abuztuaren 21era arte luzatu da. Postalak kiroldegian, kultur etxean, kaleko postontzietan edo udaletxean utzi daitezke.

Erribera kulturgunea irailaren 12an inauguratuko da eta orain arteko Kultur Etxeari merezi duen agurra eta Erriberari merezi duen ongietorria emateko, Udalak herritarrei proposamen bat zabaldu nahi die. Postal batean bi gogoeta idatzi, bi marrazki egin edo bi sentsazio islatzea; Agur Kultur Etxea esaldiari erantzunez bat eta Kaixo Erribera esaldiari bestea. Herritar guztiei dago zabaldua

proposamena eta parte hartzera animatzen da.

### Erantzunekin erakusketa egingo da Erriberan

Jasotzen diren postal guztien erakusketa bat egingo da, irailaren 12tik aurrera Erriberan ikusgai egongo dena. Gainera, postala bidaltzen duten herritar guztien artean, irailaren 12ko inaugurazio ekitaldiaren barne, Erribera Kulturgunea bisitatzeko sarrerak zozketatuko dira.

### Postalak etxeetara bidaliko dira eta eskuragarri daude

Etxe bakoitzera postal bana bidaliko da. Baina, herritar guztiek beren postala izan dezaten, eskuragarri jarriko dira udaletxean, kiroldegian, kultur etxean eta zenbait saltokitan.

### 'Agur Kultur Etxea' eta 'Kaixo Erribera' esaldiei erantzuna

Postalaren atzealdean Agur Kultur Etxea eta Kaixo Erribera esaldiei erantzun behar zaie. Oroimenak, sentimenduak, desioak, koloreak, hitzak edota marrazkiak jarri daitezke. **K**

## Lurrikara erregistratu zen igande gauean Goizueta eta Aranon

**GOIZUETA-ARANO GEOLOGIA**

Richter eskalan 3 graduko lurrikara erregistratu zuten igandegauetan Goizueta inguruan. Herrigunetik lau bat kilometroa, Ollingo meatzen inguruan izan zuen epizentroa, eta azalekoa izan zen, 0 kilometroko sakoneran. Trumoiaren antzeko soinua bat sumatu zuten herritar batzuk igandean 23:18etan, Goizuetan, Aranon, Ezkurran, Eratsunen eta Saldiasen.

## Tranbia kalean moztuko da gaur trafikoa

**ASTIGARRAGA UDALA**

Tranbia kaleko rotunda asfaltatzen den bitartean kalea moztuta egongo da gaur. Hori dela eta, trafiko guztia Aiotzategi kaletik desbideratuko da. Autobusak ere Aiotzategi kaletik joango direnez, Erribera plaza aurreko autobus geltokiak ezingo dira erabili, bertan behera geldituko dira.

## Hernanitik Urnietara paseoa, larunbatean

**HERNANI AMHER**

Abuztuaren 15ean, larunbata, Urnietara irteera antolatuko du Amher elkarteak Bolondres Taldeak. Elkarte osatzen duten batzuk Urnietatik datoz. Joan etorriak oinez egiteko bideak ezagutzeko aukera paregabea da. Hernanitik Urnietarako paseotxoak egingo dute beraz larunbatean. Goizeko 10:00etan Hernaniko Gudarien plazan elkartuko dira batera abiatzeko.

## IRAGARKI MERKEAK

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**